



*Gatazkaren ondorioak gainditu eta Euskal Herrira bakea ekartzeko urrats guztiak ez daude emanak oraindik. Askitzeko geratzen diren korapiloen artean premiazkoena da preso politikoena. Eta horrexegatik, presoen, iheslarien eta deportatuen egoerari behin betiko aterabidea emateko eskatuz, milaka lagun batu gara gaur Bilboko kaleetan, Kalera Kalera-k deituta, tartean LABeko kide ugari, Garbiñe Aranburu eta Igor Arroyo buru zirela.*

Gatazkaren ondorioak gainditu eta Euskal Herrira bakea ekartzeko urrats guztiak ez daude emanak oraindik. Askitzeko geratzen diren korapiloen artean premiazkoena da preso politikoena. Eta horrexegatik, presoen, iheslarien eta deportatuen egoerari behin betiko aterabidea emateko eskatuz, milaka lagun batu gara gaur Bilboko kaleetan, Kalera Kalera-k deituta, tartean LABeko kide ugari, Garbiñe Aranburu eta Igor Arroyo buru zirela.

Testuinguru oso berezian garatu da gaurko manifestazioa, ETAk atzokoan adierazitakoaren garrantzia kasu. Gatazkaren ondorioak gainditzeko bidean pisuzko ekarpena da egindakoa, aurretik armagabetzearekin gertatu bezala; eta izan dira bide horretan ekarpen gehiago ere. Baina gure herrian ez dago bakerik, ezta izango ere, presoen egoerari konponbidea ematen ez zaion bitartean.

Bada Garaia. Presoak kalera lelopean egin da manifestazioa. Manifestari guztien ahotan izan presoak etxeratzeko aldarria, eta deitzaileen aldetik Espainiaren espetxe politikarekiko kritika, bereziki dispertsioak, gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean mantentzeak eta lehen gradua aplikatzen jarraitzeak dakartzaten ondorio larriak kontutan izanda. Euskal Herrian garai berri bat irekitzeko baldintzak sortzen ari dira, baina horretarako gatazkaren parte izan diren alde guztiek eman beharko dute urratsa, alegia, presoen, iheslarien eta deportatuen aferari erantzuteko Espainia mugitzea tokatzen da orain, eta hori lortu bitartean mobilizatzen jarraituko dugu.

— [Urtza Alkortaren hitzartea - Intervención de Urtza Alkorta](#)